

Donostian, bildu dira: I. M.<sup>a</sup> Etxaidé, buru, Oleaga, Mitxelena, Arrue, Irigaray, euskaltzaiñak, eta Zugasti, Anai Berriotxo, Alvarez Empananza eta Irigoyen urgazleak.

Oleaga-k diño zelan Agutzuko ogetaluan Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea egin dan Bilbo-n oso gente andiaren aurrean eta oso entzungura andia egoala. Zorionak emon bekioz Irigoyen-eri, baita eskerrak Bizkaiko Diputaziñoari emon dauen kopa ederragaitik, eta Bizkaiko Ahorrokaxeari ta Bilbo-koari bardin. Bilbo-ko Ayuntamentuari emon dituen erraztasunakaitik eta Dña. Concha Goiri andreari eta bere adiskideeri emon dabon diru-laguntasunagaitik. Argi ta garbi ikusi da oraindiño oso bizirik dagoela bertsoetarako zaletasuna eta asko komeni litzake al bait eta alderdi geienetan txapelketak egitea mailla guztietako bertsolarieri sarrerea emonik. Oso begi onez ikusten dau Euskaltzaindiak Gipuzkoan bizi direan Euskaltzaindikoak prest dagozala an zerbait egiteko orren gaiñean.

Oleaga-k diño norbaitek esan deutsola zerbait baserriaren gaiñean, zelan base-rria bizirik eta indartsu egoteak zer-ikusi andia daukon euskerearen bizitzeagaz eta zerbait egin bear litzakeala baserriak bizirik jarraitu daien modu barriak arturik. Berari ezteritxo ondo Euskaltzaindia sartu daiten bere arazoa eztan gauza batean, baiña oso gogoz ikusiko leukeala berpiztuko balitz eta bere burua agertu leenagoko Eusko-Ikaskuntza eta arek ekingo baleu orretan. Beiñepeñean, eta oraingoz ori ezta- goen ezker Bizkaiko Diputaziño ta Bizkaiko Aharro-kaxeari idatzi bekie, eskerrak emoten jakiezanean bertsolarien sariketearen laguntasunagaitik, esanik Euskaltzaindiak oso begi onez ikusiko leukeala zerbait egingo balebe arazo orretan, eta prest dagoela Euskaltzaindia edozein laguntasun eta argibide emoteko berari jagokon alde- tik.

Anai Berriochoa-k diño Eppherre jauna ikusi eba la eta esan ei eutson prest dau- kola berak Euskaltzaindirako sarrera-itzaldia. Berriotxoak berak idatzi beio itandurik ia nok egin deion erantzuna gura dauen, eta non egin leiteken, Baionan edo non. Bide batez Euskaltzaindiak batzarra egingo leuke autatuten dan errian.

Ain zuzen bere gaur da Eskualzaleen Biltzarra Mithikilen. Idatzi bedi zorionak emonik.

Bizkaiko Diputaziñotik karta bat artu da eskaturik Euskaltzaindiari itzulpen bat egin daien. Da "Herbario de Vizcaya" erderaz eta euskeraz grabetako mueble barri batean. Bedarrak eta landarak gordeko direan ezkero bertan emon bei itzulpen au: "Bizkaiko bedar eta landara muetak".

Beste barik oi den otoitzagaz amaitu da batzarra.